

## 49. OSOKO BILKURAKO AKTA

Zumaiako herrian, 2011ko abenduaren 22an, arratsaldeko zortzi eta erdietan, udaletxe honetako batzar aretoan Udalbatza eratu da ezohiko bilkura egiteko, aurrez zehaztutako eguneko aztergaien arabera. Garaiz eta zuzen deitu direlarik, Udalbatzako kide hauek bertaratu dira:

**Lehendakaria:** Iñaki Agirrezabalaga Alkorta jn.

**Bertaratutako zinegotziak:**

Azis Alberdi Zaldunbide jn.

Iñaki Ostolaza Esnal jn.

Arritokieta Gonzalez Elosua and.

Eneko Agirre Maiora jn.

Maitane Agirre Arrieta and.

Montse Arana Perez and.

Edurne Egaña Manterola and.

Juan Carlos Cendoya Aizpurua jn.

Ana Arranz Irigoyen and.

Isidro Fernandez Echave jn.

Emiliano Cabañas Gonzalez jn.

Aitor Leiza Alberdi jn

**Idazkaria:** Gorka Urgoiti Agirre

## EGUNEKO AZTERGAIAK

### 1.- 2011ko urriaren 27ko 47. aktaren onarpena

Montse Arana (EAJ-PNV): Bigarren orrialdean "aurrekontuak" jarri beharrean "ordenantzak" jarri beharko lukeela adierazi du. Pixka bat aurrerago "aurrekontuei begira" sartzea komenigarria dela esaten du baita ere. Akats bat sumatu du laugarren orrialdean "ez" falta da "inon aipatzen" aurretik. Zuzenketa horiek kontuan hartuta 47. akta bere horretan onartu da.

### 2.1.- Irizpena: Udaleko 2011ko 8. kreditu aldaketa

Aritokieta Gonzalez (BILDU): Jadarre auzoan egin diren obren kostua uste baino handiagoa izan dela-eta finantzatzeko kreditu aldaketa egin behar da.

Edurne Egaña (EAJ-PNV): Zabor bilketa eta kale garbiketarako partidak jaitsi direnean kreditu aldaketa egiteko, gutxiago exekutatu delako izan bada eta horrek soberakina sortu duelako izan bada, exekuzio mailaren jaitziera hori zergatik gertatu den galdetu du.

Zigor Egia (Kontu-hartzailea): aurrekontuak luzatu edo prorrogatu direlako izan litekeela argitu du, urteroko gastuak dauden bezala luzatzen baitira eta 2009ko aurrekontuetan kopuru horretan jarrita zeudela esan du.

Alkatea: Kale garbiketan, garbiketa berezi batzuk, esaterako festetakoak, aurreikusitakoa baino gutxiago egin denez agian hortik ere eratorri dela gehitu du.

## ERABAKI ZATIA

Aldeko botoak: **8 boto** ( 6 BILDU, 1 PSE-PSOE, 1 ARALAR)

Aurkako botoak: **0 boto**

Abstentzioak: **5 boto** (5 EAJ-PNV)

**Erabakia:** 8. kreditu aldaketa onartu da

### 2.2.- Proposamena: babes finantzarioaren espedientearena

Aritokieta Gonzalez (BILDU): Ogasun batzordean azaldu den bezala, Udalak Zumaia Lantzen 4 milioiko kreditu bat abalatu nahi dio Aldundiaren baimenarekin. Banketxe batzuekin negoziatzen egon dira urte bukaera aurretik gaia itxi nahian. 2.500.000 €-ko mailegua Caixak ematekoa zen, baina atzo ezetz erantzun zuela argitu du. Hori dela-eta Kutxara jo dutela 1.500.000 € mailegua lortzeko, baina 700.000 € lortu dituztela. Ustekabe horrek kontuak ixten direnean soberakina nola uzten duen ikusi behar dela esan du. Kutxaren maileguaren baldintzak paperean banatu diela eta baita Bankoaren milioiko

zorra luzatzeko baldintzen aldaketa ere jasotzen dela paperean esan du; orain Bankoak abala eskatzen du hain zuzen ere.

Edurne Egaña (EAJ-PNV): Zumaia Lantzenek plana aurkeztu zuenean maileguak lortzeko arazoak egongo zirela sumatu zituztela esan du. Nolanahi ere, euren tristura adierazi du Udalari ekar diezazkiokeen ondorioengatik eta abstentzioa emango dutela ez dutelako oztopo izan nahi Zumaia Lantzenen egoeraren konponbidean.

Emiliano Cabañas (PSE-PSOE): Bankoaren milioiko maileguaren aldaketarik egon den galdetu du. Bestetik, gobernuaren planak espero zuen baino diru gutxiago jaso badu beharrak berdinak izanik, suposatu du epe motzerako beste formula bat pentsatu beharko duela gobernuak.

Arritokieta Gonzalez (BILDU): Bankoarena ez dela kreditu zabalketa erantzun du. Bankoarekin zeuden hiru milioiko mailegu hipotekarioa Odietako etxebizitzetara lotuta eta beste milioiko mailegua direla, eta aldatu den gauza bakarra da milioikoa abalatu egiten dela.

Iñaki Ostolaza (BILDU): maileguaren testua irakurriz argitu du jatorrizko epe motzerako milioiko mailegua desegiten dela, epe luzerako Udalak abalatzeko duen beste milioi bat formalizatzeko.

Arritokieta Gonzalez (BILDU): lau milioiak lortzea ez dutela baztertzen gehitu du, nahiz eta urtea bukatu aurretik ez lortzeak soberakinean izan dezakeen eragina saihesteko aukera galdu.

Edurne Egaña (EAJ-PNV): Odietako etxebizitzak saltzeko hainbeste zailtasun egonik agian beste formula batzuk bilatu beharko liratekeela, alokairuarena esaterako, proposatu du.

## **ERABAKI ZATIA**

Aldeko botoak: **7 boto** ( 6 BILDU, 1 ARALAR)

Aurkako botoak: **0 boto**

Abstentzioak: **6 boto** (5 EAJ-PNV, 1 PSE-PSOE)

**Erabakia:** babes finantzarioaren espedientearen proposamena onartu da

### **3.- Bi zinegotzien lanaldi erdirako liberazioa**

Iñaki Ostolaza (BILDU): lanaldi erdirako liberazioak egitea proposatzen dutela, Azis Alberdi eta Maitane Agirreren zatia alegia. Biak 10. ordainsari mailarekin eta %50eko lanaldian. Bakoitzaren ordainsari gordina 13.817,44 €.

Emiliano Cabañas (PSE-PSOE): Beste liberazio hura hutsegite bat kontsideratzen duela eta bi liberazio hauek oso bestelakoak direla harekin alderatuta; beraz, abstenitu egingo dela esan du.

## ERABAKI ZATIA

Aldeko botoak: **12 boto** (5 EAJ-PNV, 6 BILDU, 1 ARALAR)

Aurkako botoak: **0 boto**

Abstentzioak: **1 boto** (1 PSE-PSOE)

**Erabakia:** lanaldi erdirako bi liberazioak onartu dira

Eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkate-lehendakariak bilera amaitutzat eman du, eta nik Idazkariak fede ematen dut,

Idazkaria

Alkatea

## ACTA DE LA SESIÓN PLENARIA Nº49

En la villa de Zumaia siendo las veinte horas y treinta minutos del día veintidós de diciembre de dos mil once, se constituye en el Salón de Sesiones de ésta Casa Consistorial el Ayuntamiento Pleno, al objeto de celebrar sesión extraordinaria con arreglo al orden del día previamente señalado y a la que habiendo sido citados en tiempo y forma, acuden los siguientes miembros de la corporación:

**Presidente:**

Sr. Iñaki Agirrezabalaga Alkorta

**Concejales:**

Sr. Azis Alberdi Zaldunbide

Sr. Iñaki Ostolaza Esnal

Sra. Arritokieta Gonzalez Elosua

Sr. Eneko Agirre Maiora

Sra. Maitane Agirre Arrieta

Sra. Montse Arana Perez

Sra. Edurne Egaña Manterola

Sr. Juan Carlos Cendoya Aizpurua

Sr. Isidro Fernández Echave

Sra. Ana Arranz Irigoyen

Sr. Aitor Leiza Alberdi

Sr. Emiliano Cabañas González

**Secretario:**

Sr. Gorka Urgoiti Agirre

## ORDEN DEL DÍA

### 1.- Aprobación del acta nº 47 del 27 de octubre de 2011

Montse Arana (EAJ-PNV): manifiesta que en página nº2 debería poner "ordenantzak" en lugar de "aurrekontuak". Asimismo señala que sería conveniente insertar "aurrekontuei begira" un poco más adelante. En la página 4 falta un "ez" antes de "inon aipatzen".

Tomando en cuenta esas correcciones, se aprueba el acta nº 47 tal como está.

### 2.1.- Dictamen: Modificación de crédito nº 8 del 2011 del Ayuntamiento

Arritokieta Gonzalez (BILDU): hay que hacer una modificación de crédito para financiar el sobrecoste que han tenido las obras en barrio de Jadarre.

Edurne Egaña (EAJ-PNV): cuando se han reducido las partidas de recogida de basuras y limpieza de calles para hacer la modificación de crédito, si ha sido porque se va a ejecutar menos y es eso lo que ha generado remanente, ha preguntado por qué se ha dado esa disminución en el nivel de ejecución.

Zigor Egia (Interventor): ha aclarado que puede ser por que se han prorrogado los presupuestos, porque los gastos anuales se prorrogan tal como están y en los presupuestos de 2009 esas cantidades estaban así.

Alcalde: En la limpieza de calles, se han hecho menos limpiezas especiales de las previstas, por ejemplo en fiestas, y puede ser que haya sido en parte por eso.

### PARTE RESOLUTIVA

Votos a favor: **8 votos** ( 6 BILDU, 1 PSE-PSOE, 1 ARALAR)

Votos en contra: **0 votos**

Abstenciones: **5 votos** (5 EAJ-PNV)

**Se aprueba la modificación de crédito nº 8**

### 2.2.- Proposición: Expediente de la tutela financiera

Arritokieta Gonzalez (BILDU): Tal como se ha explicado en la comisión de Hacienda, el ayuntamiento quiere avalar un crédito de 4 millones a Zumaia Lantzen con la autorización de la Diputación. Han estado negociando con diversos bancos intentando cerrar el asunto antes de finalizar el año. Ha explicado que la Caixa estaba dispuesta a conceder un préstamo de 2.500.000 €, pero que ayer se echó para atrás. Por lo que han ido a la Kutxa solicitando un préstamo de 1.500.000 €, pero sólo han concedido uno de

700.000 €. Habrá que ver cómo deja ese imprevisto el remanente al cierre de cuentas. Ha señalado que en Kutxa les han dado las condiciones por escrito y que también están reflejadas sobre el papel las modificaciones de las condiciones de la prórroga de la deuda de un millón con Bankoa; precisamente, ahora Bankoa solicita un aval.

Edurne Egaña (EAJ-PNV): ha expresado que ya sospechó en la presentación del plan de Zumaia Lantzen que habría problemas para conseguir préstamos. De cualquier modo, manifiestan su tristeza por las consecuencias que eso le puede ocasionar al ayuntamiento y que se van a abstener, porque no quieren ser un obstáculo para la solución de la situación de Zumaia Lantzen.

Emiliano Cabañas (PSE-PSOE): pregunta si ha habido algún cambio el préstamo del millón de Bankoa. Por otra parte, si el plan del gobierno ha recaudado menos dinero siendo las necesidades las mismas, supone que a corto plazo el gobierno deberá buscar otra fórmula.

Arritokieta Gonzalez (BILDU): ha respondido que lo de Bankoa no es una ampliación de crédito. Con Bankoa había un préstamo hipotecario de tres millones en relación con las viviendas de Odieta y el otro era del millón, y lo único que ha cambiado ha sido que se ha avalado el del millón.

Iñaki Ostolaza (BILDU): ha leído el texto del préstamo y ha aclarado que se anula el préstamo original de un millón a corto plazo para formalizar otro a largo plazo que avala el ayuntamiento.

Arritokieta Gonzalez (BILDU): ha añadido que no descartan conseguir los cuatro millones, aunque de no conseguirlo antes de finalizar el año se perdería la oportunidad de evitar su repercusión en el remanente.

Edurne Egaña (EAJ-PNV): ha propuesto que viendo las dificultades que hay para vender las viviendas de Odieta quizá habría que buscar otras fórmulas, por ejemplo el alquilarlas.

## **PARTE RESOLUTIVA**

Votos a favor: **7 votos** ( 6 BILDU, 1 ARALAR)

Votos en contra: **0 votos**

Abstenciones: **6 votos** (5 EAJ-PNV, 1 PSE-PSOE)

### **Se aprueba la proposición del expediente de la tutela financiera**

### **3.- Propuesta de liberación al 50% de 2 concejales**

Iñaki Ostolaza (BILDU): se proponen dos liberaciones a media jornada para Azis Alberdi y Maitane Agirre. Las dos serían con un nivel retributivo nº10 y una dedicación de media jornada. El sueldo bruto de es de 13.817,44 €.

Emiliano Cabañas (PSE-PSOE): ha señalado que consideraba la otra liberación un error y que estas otras dos son muy diferentes respecto a aquellas, por lo que se abstendrá.

#### **PARTE RESOLUTIVA**

Votos a favor: **12 votos** (5 EAJ-PNV, 6 BILDU, 1 ARALAR)

Votos en contra: **0 votos**

Abstenciones: **1 voto** (1 PSE-PSOE)

**Se aprueban las dos liberaciones al 50%**

No habiendo más temas que tratar, el Alcalde-Presidente da por finalizada la sesión, y yo el secretario doy fe.

El Secretario

El Alcalde